

2. MERKATUAREN SEGMENTUA

Gure produktua publiko orokorrari zuzenduta dago, nahiz eta gehien erabiliko duten pertsonak guraso eta adinekoak izango dira, hau da, 30 urtetik gorakoak. Horregatik, segmentu horretan jarriko dugu indar gehien. Horrez gain, txip-a web-gunean saltzeaz gain, elektronika dendetan ere salduko du, hauek bitartekari bezala erabiliz. Horrela, dendei ere zuzenduta egongo da gure produktua. Hauek dira arrazoiak:



Alde batetik, gurasoak, haurren gauzetan txip-a ezarri ahalko dute, horrela, ez dituzte beraien ondasunak galduko. Hala nola, motxilan, berokian...



Beste aldetik, adineko pertsonentzat erabilgarria izango da. Gauza da, gure aiton-amonek normalizatuta daukatela beraien egunerokoan gauzak galtzea, horregatik, gure txip-a edukiko dute gauzak modu erraz batean lokalizatu ahal izateko.

Azkenik, lehen esan dugun bezala, elektronika dendetan ere salduko dugu gure txip-a. Denda horiek gure bitartekariak izango dira horregatik gure produktua erosiko dute elektronika dendetan saldu ahal izateko. Hala nola, *Media Mark*, *Fnac*...

Hau guztia kontuan hartuta, gure txip-aren diseinua bai gurasoek bai eta adineko pertsonen erraz erabili ahal izateko sortuta dago.